



# EDIKTUA

**ENEKA MAIZ ULAIAR  
ETXARRI ARANAZKO ALKATEORDEAK**

**JAKINARAZTEN DU:**

## **PLANTILA ORGANIKOA 2015. ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA**

Nafarroako Tokiko Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 201. eta 202. artikuluei eta gaiaren inguruko arautegian ezarritakoari jarraikiz, eta ikusirik lan antolamendurako eta zerbitzuaren funtzionamendurako aldaketa behar beharrekoa dela, 2015eko maiatzaren 22an egindako Osoko Bilkurak aho batez ERABAKI DU:

1.- Etxarri Aranazko Udalaren 2015eko plantilla organikoaren aldaketa hasiera batez onartzea, kaleko langileei, garbitzaileei dagokienez.

2.-Espedientea NAOn argitaratzea eta 15 eguneko epean jendaurrean jartzea bere onarpenerako, eta herritarrek egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkezteko. Era berean, akordioa iragarki oholean argitaratuko da.

3.-Langile guztiei akordioa helaraziko zaie jakinaren gainean izateko.

Etxarri Aranatzen, 2015eko ekainaren 3an  
Alkateordea: Eneka Maiz Ulaiar

